



## 2012ko Maiatzako Newsletterra-28. Zenbakia

DSSn Diseinatua

Nabarmenena

Gaurkotasuna

Plan estratégico News

### DSSn DISEINATUA



#### PECHA KUCHA DONOSTIA

Pecha Kucha Night aurkezpen formatu sortzaile bat da non lan bat era erraz eta informal batean aurkezten den. 2003an Japonian jaioa, diseinatzaile gazteentzat elkarpuntua da. Aurkezle bakoitzak 20 irudi edo diapositiba jarri ditzazke 20 segunduz Pecha Kucha Nighten formatu propioarekin. 20x20 formatu honek zazpi minutu baino gutxiagon aurkezpen bat ikustea ahalbidetzen du, ekitaldi bakoitza normalean 8 aurkezpenek osatzen dute. Horrela interes eta arreta maila altua mantentzea lortzen da aurkezpen laburren bitartez.

Pecha Kucha izena hitz japoniar batetik dator, "chit-chat", elkarrizketa baten soinua islatzen duena.

Bloga ikusi: <http://pkndonostia.blogspot.com.es/>

### Nabarmenena



Juan Karlos Izagirre Donostiako Alkateari elkarrizketa

#### "Gure apustua zentroaren eta periferiako auzoen arteko desoreka gainditzea da eta langabezia murriztea"

2011ko ekainaren 11n Juan Karlos Izagirrek Donostiako alkate karguaren zina egin zuen eta aro demokratikoko Donostiako bosgarren alkate bilakatu zen. Ia urtebete igaro da ordutik, eta badirudi momentu ona dela igarotako denboraren balantzea egiteko eta etorkizunaz hitz egiteko.

Albiste osoa irakurri [+]

Igo ^



## erabakia hartu genuen urtea

Duela hamarkada luze bat martxan jarri zen Donostiako Plan Estrategikoaren bulegoa. Hain zuzen 2001eko azaroaren 28an sortu zen Planaren Batzorde Sustatzailea, Plan Estrategikoaren organo betearazle eta funtzionamendu onaren bermatzailea.

[Albiste osoa irakurri \[+\]](#)

## Sareetan gaude...

Oso denbora gutxian sare sozialak ezinbesteko komunikazio tresna bilakatu dira. "Sareetan ez bazaude ez zarela inor" esateraino.

Donostiako Estrategia Bulegoak tarte bat bilatu nahi du arlo honetan. Horregatik, zu aintzakotzat hartu nahi zaitugu, zure ideiak, ekarpenak, kritikak eta iritziak jasotzea gustatuko litzaziguke ondorengo bi sare sozialetan.



Igo

## Gaurkotasuna



## 2012: Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien arteko Elkartasunaren aldeko Europako urtea

Europa modu progresibo eta azkarrean zahartzen ari da. Gure egitura demografikoak eraldatzen ari den fenomeno berri baten hasieran gaude, ondorio handiak izango dituena, bai gizartean, bai ekonomian, bai eta kulturean ere. XXI. mendean zehar aurrera egingo duen isileko iraultza da, gure gizartean eta gure bizikidetzaren eremuan aldaketak eragingo dituena.

Biztanleriaren zahartzea gizateriaren lorpen handienetarikoa da eta, aldi berean, gure erronka handienetarikoa.

[Albiste osoa irakurri \[+\]](#)

Igo

## Plan Estratégico News



## "Zahartzarora...sare sozialak"

TAFcity europar proiektua Donostian bildu zen eta bere kideek Donostiako Estrategia bulegoan topaketa bat burutu zuten.

Belgika, Espainia, Hungaria, Eslovenia, Portugal, Errumainia eta Erresuma Batuko hiriak proiektuaren parte dira Leonardo da Vinci europar agentziaren finantziarioari esker. Donostia aitzindaria den "Adinarekin Hiri Lagunkorren" inguruko ezagutza handitzeko eta promozionatzeko sare sozialetan oinarrituriko irakaskuntza metodologia berritzaileak garatzea da proiektu honen helburua.


[Albiste osoa irakurri \[+\]](#)

Igo

## Plana bertan egon zen...

Donostia ez da gelditzen, ezta udan ere. Udako ikastaroak, enpresen topaketak zinearen eta ikus-entzunezkoen munduan, mugikortasun iraunkorra edo talentuen erakarpenean hiriak edonolako ekitaldien egoitza izateko duen gaitasunaren adibide batzuk besterik ez dira. Donostiako Estrategia Bulegoak atsegin handiz parte hartu du horietako batzuetan, eta horiek nabarmenduko ditugu, hain zuzen ere, ondorengo lerroetan.

Albiste osoa irakurri [+]

Igo 

### Agenda



#### "LANAREN ETORKIZUNA EUROPAN"

UPV-EHUko Uda Ikastaroak  
Abuztuak 29-30  
Miramar Jauregia.

» [Jaitsi txostena](#)

### Prentsa laburpena

[Punto Radioko "Ciudadanos en Punto" saioan elkarrizketa Kepa Kortari. 2012/03/12](#)

[Cadena SEReko "Hoy por Hoy San Sebastián" saioan elkarrizketa Kepa Kortari. 2012/01/31](#)

Aldizkari hau jasotzen jarraitzeko izen eman nahi baduzu, [sakatu hemen](#)

Zure erregistroa ezeztatuz nahi baduzu, [sakatu hemen](#)

Email honen edukia ikusi ezin baduzu, kontsulta ezazu [www.donostiafuture.net](http://www.donostiafuture.net)

Datuen babesa | Lege oharra